

CURIOSÍSIMO DOCUMENTO



Carta-puebla expedida en la Ciudad de Segovia á 15 de Septiembre de 1383 por el Rey de Castilla D. Juan I, á petición de los hijos-dalgos y hombres buenos del pueblode Aizarna para fundar la murada Villa de Santa Cruz de Cestona.

En el nombre de DIOS padre efijo é spiritu santo que son tres personas, é un DIOS verdadero que vive é regna por siempre jamás é de la bienaventurada Virgen gloriosa Santa María su madre á quien nos tenemos por Señora é por abogada en todos nuestros fechos et á onra en Servicio de todos los santos de la corte celestial por que á los Reyes es dado de facer grandes mercedes en aquellos logares que entendieren que con razón deven fazer porque entienden que seran por ello mas loados mayormente quando dan pueblas do moran algunos moradores é fazen Villas é logares por que los sus Regnos sean por ello mas acrescentados y mejor poblados é fique de ellos siempre en remembranza al mundo: por ende nos don Juan por la gracia de DIOS Rey de Castiella, de Toledo, de leon, de galicia, de Sevilla, de Córdoba, de Murcia, de Jaen, del Algarbe, de Algezira, é Señor de Lara é de Vizcaya, é de Molina con voluntad que avemos de acrecentar los nuestros regnos faziendo muchas mercedes por que mejor puedan ser pobladas para nuestro servicio et por fazer bien é merced á los fijos-dalgo é omes buenos de la parrochia de Santa María de Ayzarna et porque los dichos fijosdalgo é omes buenos nos enviaron su petición en que nos enviaron decir que ellos que no podian vivir en la dicha parrochia por muchos males é daños que avian rescebido é resciben de cada dia de caballeros é escuderos poderosos de las comarcas de en derredor et otrosi que estaban en frontera de Navarra é de la gascuña

é que si acaesciese tiempo de guerra en aquella comarca que se non podrian defender segunt cumple á nuestro servicio et nos enviaron pedir por merced que les dieseamos licencia para que pudiesen poblar una Villa nuevamente en la tierra de la dicha parrochia por que ellos pudiesen estar guardados como cumple á nuestro servicio por ende damosles licencia para que ellos que puedan poblar é pueblen una villa en la dicha tierra de la dicha parrochia de Santa Maria de Ayzarna en el logar que ellos entendieren que mejor estará et para que la puedan cerrar en la manera que ellos entendiesen que mejor se podran defender para nuestro servicio non faziendo perjuizio á ningun concejo de cualquier villa de la comarca ni á otra persona alguna et que aya por nombre esta dicha villa Santa Cruz de Cestona et que los fijosdalgo que viniesen ser vecinos á la dicha villa de Santa Cruz que ayan los fueros é franquezas é libertades que ha la villa de miranda de Azcoitia et los otros que viniesen ser vecinos de la dicha villa que ayan los privilegios é franquezas é libertades que han los otros vezinos de las otras nuestras villas de guipuzcoa et que puedan poner alcaldes et jurados et escrivanos é otros oficiales quales cumpliesen é menester fuesen segunt que los han las otras nuestras villas sobre dichas de guipuzcoa et que las alzadas de los pleitos de la dicha villa que vayan para Vitoria et que nos obedezcan et cumplan nuestras cartas é nuestro mandado é aya autos emplazamientos é llamamientos cada que los enviaseamos emplazar ó llamar et que ande y la nuestra moneda et que nos obedezcan et acoigan en la dicha villa á nos et á los Reyes que regnasen despues de nos cada que y llegaremos de noche ó de dia con pocos ó con muchos irado ó pagado en lo alto et en lo bajo et que fagan ende perra ó paz todo por nuestro mandado cada que gelo mandaremos ó enviaremos mandar et que fagan ende todas las cosas que en los otros logares del nuestro señorío fazen é deven fazer assi de derecho como de costumbre et retenemos en nos é para los Reyes que regnaren despues de nos en Castiella é en leon mineras de oro é de plata é de azul si lo y ha ó oviere daqui adelante et por que esto sea firme é estable para siempre jamas mandamosles dar esta nuestra carta escripta en pergamino de cuero é sellada con nuestro sello de plomo pendiente. Dada en las cortes de la cibdat de Segovia á quince dias de setiembre era de mill é quatrocientos é veinte y un año.

TRADUCCIÓN DE LA CARTA-PUEBLA ANTERIOR

Gure asabak edo aurreko chit doatsuak irichitako esku-itza edo karta, España-ko errege on Juan lenbikoagandik Zestua-ko erriya ondekidatzeko.

Betiko bizitza ta erregetasunean bizi dan ta iru izakezunetan Jaungoiko egiazko bakarra dan Aita, Semea ta Espiritu Santuaren izenean, eta gure Andre ta laguntzalle bezela biotzaren erdian daukagun Bere Ama Maria Garbi doatsuaren izenean, eta zeruko santu guztien doanditasun ta onorean, Erregeai ongi zatorkietelako merezi duten toki batzuei mesede andiak egitea, bada, beren iritziz, erriak egiteko baimenak ematean mesede oyen bidez, batez ere toki oyetan bizi diran gizonakgandik, askozaz gorago jasoak izango dira erregeak, zeintzuk uri ta leku berriak egiten dituzten beren errezumak andiagoak eta obeki beteak izan ditezen eta beren oroitza ona gerora ere gelditu dedin lurrean: Orregatik, guk, Juan Jaungoikoaren esker eta laguntzaren indarrez Gastela, Toledo, Leon, Galizia, Sebilla, Cordoba, Murzia, Jaen, Algarbe, ta Aljezirako Errege, ta Lara Bizkaya, ta Molina-ko Jaun geranok, mesede ugariak egiñaz gure errezumak zabaltzeko daukagun gogoarekiñ gure laguntzarako obeki bete ta jautziak izan ditezen eta Aizarna deritzayon Santa Maria eliztiko seme garbi ta giza-onai mesede ta on egiteagatik eta izentatu ditugun seme garbi ta giza-onak eskabidea biraldu zigutelako, esanaz, elizti artan ezin zirala bizi alboerrietako zaldun ta oñezko indartsuak egunero egiten ziozkaten gaitz ta kalteak gatik, ta baita ere Naparroa ta Gaskuñako mugan zeudelako, guda-egunik bazetorren inguru ayetan ezingo ziratela ongi zaintu gure onari zegokion bezela, ta eskatzen ziguten, mesedez, eman genezaiegula esandako elizti artan uri berri bat asi ta betetzeko baimena, berak obeki gordeak izan zitezen, gure onari zegokion bezela. Orregatik ematen diegu baimena esan degun lurrean Aizarna deritzayon Santa Maria-ko eliztian uri bat bete ta ugaritu dezaten bere iritzi-

ko tokirik onenean ta ichi ta ezitu dezaten berak ondoen uste duteneran, obeki gordeak egon ditezen, gure onerako, inguruetako uri, bazarre ta gizonen kalte gabe, eta uri onek izan dezala izentza Santa Cruz de Cestona, eta bertara bizi izatera joaten diran seme-garbiak izan ditzatela Azkoitiko Miranda deritzayon uriko berezkortasun, askaera ta legeak eta bertara bizi izatera dijoazen beste gizonak izan ditzatela beste Gipuzkoan diran urietako bakoitz-lege, emakintza ta askaerak, eta izan dezatela ere beren eginkizuna beteko duten alkate, erabakitzalle, eskribau ta beste bear diran lege-gizonak ipintzeko eskubidea, beste gure Gipuzkoako uriak duten bezela, eta uriko auzien gora joateak joan ditezela Bitoria-ra, eta menegiñ dezaigüela gure eskutitz ta aginduak beteaz, eta izan ditzala juezen erabaki ta dei-egiteak guk dei egiten diogun bakoitzean, ta ibilli dedilla bertan gure dirua. Eta gure mendean egon dedilla, eta artu gaitzatela gu ta gure ondorengo erregeak uri orretan, bertara joaten geran guztian, egunez edo gabaz, guchi edo askorekiñ, gogorrean edo bear dana emanda, goian edo beian, eta egin dezatela gerra edo pakea, dena gure aginduz, agintzen degun bakoitzean edo gure izenean beste batzuk agintzea diotenean, eta egin ditzatela beste gure Jauntasuna eltzendan lurretan egiten dituzten gauza guztiak, eta onela egin bear dute oitura ta legea dan bezela, eta gordetzen ditugu guretzat eta gure ondorean Gastela ta Leon-en izan diteken Erregientzat urre, zillar ta arri-urdiñ ezko meatzak oraiñ baldiñ badira edo iñoiz izaten badira aurrentzean. Eta au beti tinkea ta iraungarria izan dediñ agintzen degu eman zayetela gure eskutitz au larruzko paperean ezkribatua eta gure beru nezko zilloa zinzillik duala. Segobia uriko kortietan emana, milla laureun ta ogeta bat garren eraste ta urteko buruillaren amabostean.

